

Izaro Bustinduy Antxustegietxarte

F maila • 1 saria

Kaixo, nik Izaro Bustinduy Antxustegietxarte dut izena, Uztailak 18an 10 urte beteko ditut eta Beasainen bizi naiz. Zumarragako ospitalean, 14:30ean jaio nintzen. Murumendi eskolara joaten naiz eta eskola ondoren Judo eta Eskola Kirola egiten dut. Nik denbora librean: Irakurri, dantzatu, kantatu edo familiarekin egoten naiz. Bueno hau izan da niri buruz esateko nuen guztia. Agur!!!



KOLORE GABEKO OSTADARRA

Bazen behin ostadar polit polit bat Laura izenekoa. Goiz batean, bere lagunekin zegoela, ekaitza etorri zen. Denak hodeien atzean ezkutatu ziren beraien koloreak ez galtzeko. Denak, Laura ezik. Lagunak konturatu zirenean esan zioten:

- Kontuz Laura! Ekaitza dator! Ezkutatu zaitez!

Baina beranduegi izan zen. Dagoeneko ekaitza han zegoen eta Laurarengana iritsi zenean kolore guztiak kendu zizkion.

Laura kolorerik gabeko ostadarra bihurtu zen orduan. Bere lagunak berarengana joan zirenean eta kolorerik gabe zegoela ikusterakoan esan zuten:

- Ez dituzu kolorerik! Horrek esan nahi du ez zarela ostadar bat! Agur!. esan zioten lagunak.

- Ez mesedez, ez joan! esan zien negarrez hasita. Baina bere lagunak buelta eman eta alde egin zuten.

Lurak negarrez jarraitu zuen denbora luzez. Triste eta bakarrik sentitzen zen eta horrela jarraitu zituen ondorengo egunak eta asteak.

Baina egun batean lagun berriak aurkitu behar zituela erabaki zuen eta lagun bila atera zen.

Hodei bat ikusi zuen eta galdetu zion:

- Nire laguna izan nahi duzu? Baina ez zuen espero horrelako erantzunik:

- Ez, noski ezetz! Alde hemendik!

Orduan Laurak aurrera egin zuen eta beste ostadar bat ikusi zuen. Berarengana joan eta galdetu zion:

- Nire laguna izan nahi duzu? -baina honek ere horrela erantzun zion:

- Zer uste duzu? Noski ezetz!

Eta Laurak aurrera jarraitu zuen triste.Beste batzuei ere galdetu zien baina erantzuna beti berdina zen.Ez zekien zer egin lagunik gabe.Egun batetik bestera bere bizitza aldatu zen berak ez zekielako lagunik gabe bizitzen.Hura oso gogorra zen.

Ettxera bueltatu zen eta telebista piztu zuen.Telebistari begira jarri zen baina bere burua beste toki batean zegoen:

- Ez dut ulertzen! Zergatik ez du inork nire lagunik izan nahi?Eta negarrez hasi zen berriro.

Negarrez ari zela anuntzio berezi bat entzun zuen telebistan.Negarra utzi eta entzun zuen:

- Zeruan bizi zara aspertuta?Bakarrik sentitzen zara eta aspertu egiten zara?Ba lasai!Gaur,bihar eta etzi Lurrera jaitsi zaitezke!Ez galdu zure aukera!

Ez zuen gehiegi pentsatu!Erabakia hartuta zeukan!

- Badakit! Aukera hori aprobetxatu beharra daukat!Joango naiz eta Lurreko kolore guztiak hartuko ditut!Espero dut ez konturatzea!

Maletak prestatu eta geltokira joan zen.Trena bostetan zen baina Laura hiruretarako han zegoen urduri.Gosea zuela konturatu zen orduan.Ezertxo ere jan gabe atera zen etxetik eta horrelako bidai bat egiteko zer bait jan behar zuela pentsatu zuen.Geltoki ondoan zegoen denda batean sartu eta txorizo bokadiloa erosi zuen eta geltokian eserita jan zuen.

Azkenean iritsi zen trena.Bere eserlekuan eseri zen eta megafoniatik bidai luzea izango zela entzun zuen.Laura urduri zegoen baina oso pozik azkenean Lurrera jaisteko aukera izango zuelako.Trena martxan jarri orduko lo hartu zuen eta amets polit bat izan zuen.Amets horretan nola hartuko zituen koloreak pentsatzen joan zen.

Lauraren ondoko eserlekuan hodei bat zegoen.Hodei hau erabat harrituta zegoen kolorerik gabeko ostadar bat zuelako bere ondoan.Laura esnatzeko zain egon zen eta esnatu zenean galdetu zion:

- Kaixo ostadarra! Barkatu molestatzea baina galdea bat egin nahi nizuke.

- Kaixo bai! Zer galdetu nahi didazu ba?

-Harrituta nago erabat ez dudalako inoiz ikusi zu bezalako ostadar bat!Zer gertatu zaizu?Zergatik galdu dituzu koloreak?

Laurak orduan gertatutako guztia kontatu zion.Hodeiak adi entzuten zion eta bukatu zuenean esan zion:

- Ba ni izango naiz zure laguna!Bai!Zure laguna izan nahi dut!

- Benetan?erantzun zion Laurak hunkituta eta besarkada bat eman zion.

Orduantxe entzun zuten megafoniatik iristen ari zirela.Dena prestatu eta jaitsi ziren Lurrera.Oso ezberdina zen.Zeruan bizitzetik Lurra zapaltzera...

Trenetik atera eta biak koloreak bilatzera joan ziren.Lurra kolorez beteta zegoen.Ez zen hain zaila izango behar zituenak lortzea.Parke batera iritsi ziren eta hantxe ikusi zuten kolorez betetako leku zoragarri bat.Hosto berde bat ukitu eta berehala erantsi zitzaion bere gorputzera.Ze erraza!!!Banaka banaka koloreak hartzen joan zen eta azkenean lortu zituen galdutako kolore guztiak. Hura poza!

Orduan pentsatu zuten bazela bueltatzeko ordua.Zertarako gelditu denbora gehiago hemen?
Hobe bere etxea itzultzea lehen bait lehen.

Eta horrela bueltatu ziren bi lagunak geltokira.Hurrengo trena hartu eta zerura itzuli ziren poz
pozik.